

HITZ BITAN

Laxoaren egun handiak

MODALITATEA INDARTUZ. Errebote-jokoko finala, Nafarroako Federazioarekin akordioa, eta Munduko Txapelketan presentzia izanen du Baztan-Malerrekako pilotak

Endika Sorondo | OITZ

Egun bereziak dira hauek laxoarentzat, Malerreka eta Baztanen jokatzeko den errebote jokarentzat. Urteko egunik handiena ospatuko dute heldu den igandean, Baztan-Erreka Laxoa Txapelketako finalarekin. Abuztuaren Iruñean egingen den Munduko Pilota Txapelketan Laxoa eta Pasaka partidak jokatu dira, eta Nafarroako Pilota Federazioaren onespina lortu dute, lehenbizikoz.


Apirilean hasitako txapelketak akabera izanen du igandean Oizko plazan. Goizeko 10:00-etan hasiko da guante-jokoko hirugarren eta laugarren posturako partida, eta urtetan txapeladun izandako Doneztebeko taldea eta Irurita A (finalerako faboritoa) lehiatuko dira partida horretan. Angelusa izanen da ondotik, eta aurtengo finalak paratuko dio errematea. Arraiotz A (txapela defendituko duen taldea) eta Irurita A talde-

ak ariko dira aurrez aurre, azken hauek lehenbizikoz finalera ailegatu direnak.

Partida irekia izanen da igandekoa, batik bat pilota plazagatik. Oizkoa gainerako plazak baino meharragoa eta motzagoa da, eta horrek jokari bizitasuna emanen diola aitortu zuen Luis Miguel Mortalenak, Arraiozko pilotariak. «Bertze plaza batean gu izanen ginen aise faboritoak, baina Oizkoan ez, ez baita guretzat aproposa, eta Irurita sakatzailea ezkerre da, gainera».

Finalaren ondotik bazkaltzera bilduko dira txapelketan parte hartu duten 12 taldeetako pilotariak. «Egun handia izaten da laxoarentzat», aitortu zuen Alberto San Miguel Oizko alkate eta pilotariak.

Baina Laxoa Elkarteko kideak arrunt kontent dira Iruñean abuztuaren jokatu den Munduko Txapelketan Laxoa eta Pasaka ordezkatuak egonen direlako. Laxoko partida bakarra jokatu da, erakusgarri



TTIPI-TAPA

Baztan-Erreka Laxoa txapelketako partida bat.

gisa, Doneztebeko plazan, abuztuaren 27an. Pasaka, aldiz, hiru bider ikusteko aukera izanen da, lehen partida Lizarran jokatu da abuztua-

ren 24an; biharamunean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu da bertze partida bat, eta bi partida horietako irabazleek hirugarren bat jokatu dute,

Labriten berriz ere, abuztuaren 28an. «Guretzat garrantzitsua da, arras, Munduko Txapelketan egotea», aitortu zuen Josu Primek, elkarteko kideak. «Orain 40 urte Iruñean jokatu zenean han izan ginen, eta handik gerora ere Gasteizen eta Donibane Lohizunen egonak gara».


Federazioarekin akordioa bai, sinadurarik ez

Urteak daramatza Laxoa Elkartek bi pilota modalitate horiek Baztan eta Malerrekan zabalitzen. Orain artean ez zuten lortu inongo Pilota Federazioaren onespina, baina azkenean, urtebeterako akordioa prest dute Nafarroako Pilota Federazioarekin. Igandeko finala aurkezteko agerraldia aprobetxatu nahi izan zuten Laxoa Elkarteko kideak akordio hori sinatzeko eta jendearen aitzearan aurkezteko joan den asteartean, baina Nafarroako Pilota Federazioko kideak ez ziren Oitzen izan, «ahantzita», nonbait. Ekonomia arloan izanen du onurarik handiena Laxoa Elkartearentzat Nafarroako Federazioarekin sinaturikoak, «baina baita nola baiteko ofizialtasuna ere, federazioan sartzea ekarriko baitu honek». Sinatzea falta da, ordea.

SASKIBALOIA. Emakumeen AEBetako liga profesionalean lortu lehen matea



EGUNKARIA



Lisa Leslie pibotak WNBAko historiara hegan egin zuen

Historiara pasako da Los Angeles Sparkseko pibot Lisa Lesliek (argazkian) atzo egin matea, WNBA emakumezkoen Estatu Batuetako saskibalo ligan inork egindako lehen matea izan baitzen jokalar estatubatuarrek lortutakoa. WNBAko jokalar onena izendatu berri duten Lesliek

bere 1,96 metro eta 77 kiloak saskirantz hegan jarri zituen, eta historiako zeruan amaitu zuen, Los Angelesko Staples Centerren bildu ziren 13.141 ikusleak zuzen eta lur utziz. Etxekoen zoritxarrerako, ordea, mate hura ez zen nahikoa izan Sparksek Miami Solen aurka jasan zuen porrota ekiditeko.

TXIRRINDULARITZA

Dopinaren aurkako borroka indartzeko helburuarekin dekretua onartuko da Frantzian datorren urrian

Dopin produktuen trafikoaren aurkako borroka indartzeko helburuarekin datorren urrian dekretu bat onartuko dutela adierazi zuen atzo Kiroletako ministro frantses Jean-Francois Lamourek. Aurreikuspenen arabera, Kiroletako Ministerioa, Polizia, iruzurren aurkako brigada eta aduanen arteko elkarlana bultzatzeko balioko du Lamourek aipatutako dekretuak.

FUTBOLA

Fluminenseko jokalar bihurtu zen atzo Romario, 36 urterekin

36 urterekin, Rio de Janeiroko Fluminense taldeko jokalar bihurtu zen atzo Romario aurrelari brasildarra, *O globo* egunkariak atzo jaso zuenez. Bartzelona eta Flamingo bezalako taldeetan aritutako jokalariek hilaren 11n jokatu du lehen partida Fluminenserekin.

FUTBOLA

Ahn Peruggiara itzuliko da beste talderen batera utzita joateko

Ahn Jung-hwan aurrelari hegokorearra Peruggiara itzuliko da, beste klub bati batera utzita joateko aukera ematen badiote beti ere, jokalararen ordezkariak atzo esan zuenez. Munduarean Italiari gola sartu zionean hasi ziren Peruggia eta Ahn arteko liskarrak.

BOXEOA

Alexander Muñoz venezuelarrak superreulien pisuko munduko txapelari eutsi zion Kojimaren aurrean

Superreulien pisuan duen munduko txapela mantendu zuen atzo Alexander Muñoz boxeolari venezuelarrak, Eiji Kojima japoniarrari erraz irabazi ostean. Kojima bigarren asaltan utzi zuen KO, eta 23 dira jada venezuelarrak bere aurkariak zerraldio utzita lortutako garaipenak.